Según este estudio, cada año se podrían evitar muchas muertes prematuras en las ciudades europeas, si se mitigara la contaminación del aire, sobre todo atendiendo a los límites de la OMS, por lo que se solicita que se tomen medidas de forma inmediata.

Hortaz, adierazpenaren lehen aurkezpena 2019ko urrian izanik, COVID-19 pandemia tartean izanik eta honek ekarritako aldaketekin, hartu beharreko neurriak berrikusi egin behar direla eta horien aplikazioan berandu gabiltzala adierazi nahi dugu EH Bildutik.

Por tanto, teniendo en cuenta que la primera presentación de la declaración tuvo lugar en octubre de 2019, que en este intervalo ha irrumpido la pandemia del COVID-19, con los cambios que de ella se han derivado, desde EH Bildu queremos poner de manifiesto la

necesidad de revisar las medidas a adoptar y manifestar que andamos tarde en su aplicación.

Gure aldetik, ezinbestekoa ikusten dugu, klima aldaketaren aurkako neurriak ezartzeko orduan, orain arte adierazitakoak berrikustea eta horiei jarraipena emateko sarea eta mahai politikoa eratuak izatea.

Consideramos imprescindible que, a la hora de implantar las medidas de lucha contra el cambio climático, se revisen las señaladas hasta ahora y se constituya una red y una mesa política para su seguimiento.

Aspaldi dute eskaera hori egina Donostiako hainbat eragilek (sindikatu, erakunde ekologista, auzo elkarte eta bestelako eragile ugarik) eta horrela adierazi dute azken aldian. Egungo pandemia dela-eta, inoiz baino beharrezkoagoa da norabide aldaketa sakona egitea eta trantsizio ekologiko eta sozialki justu baten alde urratsak ematea.

Hace tiempo que varios agentes de la ciudad (sindicatos, organizaciones ecologistas, asociaciones vecinales y otros agentes) vienen solicitando este extremo y así lo han manifestado últimamente. La pandemia actual hace más necesario que nunca cambiar radicalmente de rumbo y dar los pasos necesarios hacia una transición ecológica y socialmente justa.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por todo lo expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, 2020ko martxoan publikatutako Larrialdi Klimatikoaren Adierazpenaren harira, lehenbailehen jarraipen mahai politikoa sortzea, neurri horiek aplikatu aurretik berrikusiak izan daitezen, neurri berriak azter daitezen eta egun bizi dugun egoerara egokitu daitezen.

1- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, en el marco de la Declaración de Emergencia Climática publicada en marzo de 2020, cree, sin más dilación, una mesa política de seguimiento, para que estas medidas puedan ser revisadas antes de su aplicación y se puedan estudiar nuevas medidas que se adapten a la situación actual.

2- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, 2020ko martxoan publikatutako Larrialdi Klimatikoaren Adierazpenaren harira, lehenbailehen Donostiako herritarrez, eragileez, erakundeez eta enpresez osatutako sarea sortzea, neurri horiek aplikatu aurretik berrikusiak izan daitezen, neurri berriak azter daitezen eta egun egun bizi dugun egoerara egokitu daitezen.

2- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, en el marco de la Declaración de Emergencia Climática publicada en marzo de 2020, cree, sin más dilación, una red compuesta por la ciudadanía, los agentes, las instituciones y las empresas de San Sebastián, para que estas medidas puedan ser revisadas antes de su aplicación y se puedan estudiar nuevas medidas que se adapten a la situación actual.

3- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio

3- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián

Udal Gobernuari mahai politikoarekin eta sarearekin adostutako neurrien etengabeko jarraipena egiteko aukera izan dezaten mahai politikoak berak eta Donostiako herritarrez, eragileez, erakundeez eta enpresez osatutako sareak berak.

Donostian, 2021eko urtarrilaren 22an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia"

insta al Gobierno municipal a que la mesa política y la red formada por la ciudadanía, los agentes, las instituciones y las empresas de San Sebastián tengan la oportunidad de hacer un seguimiento continuo de las medidas acordadas con estos dos entes.

San Sebastián, 22 de enero de 2021

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH BILDU"

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Haizea Garay Gallastegui andreak, eta Borja Corominas Fisas jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Haizea Garay Gallastegui y D. Borja Corominas Fisas, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Antondegiko eremuan surf park bat eraikitzeko asmoari buruz.**

“Jon Markel Ormazabal Gaztañaga EH Bildu udal taldeko zinegotziek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau

**II.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la intención de construir un surf park en la zona de Antondegi.**

“Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno,

aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko urtarrilaren 18an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko abenduaren 31n, hiriko egunkari batek iragarri zuen Donostiako Udal Gobernuak berriz ere ekin nahi diola hirian Surf Park bat eraikitzeko asmoari. Halako azpiegitura bat sortzeko asmoa ez da berria; izan ere, 2018an orduko alkateorde Ernesto Gascok adierazi zuen olatu artifiziala eraikitzeko gogoa "surfaren mundua profesionalizatzeko aurrerapauso gisa".

2021eko urtarrilaren 18ko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean Nekane Arzallus Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariak albistea baieztatu zuen. Oraingo asmoaren arabera, egitasmoa Martutene inguruetan dagoen Antondegiko lursailean egingo da, eta Udal Gobernuak horretarako beharrezkoa den Plan Orokorreko aldaketa tramitatzeko prozedura abiatuko du.

Sare sozialetan arrabotsa sortu zuen albisteak berehala. Izan ere, Europako surflariek sortutako irabazi asmorik gabeko Surf Rider elkartea azpiegitura hauen aurka posizionatu da 2020an. Funtsean diote surf park-ek ingurumenari egiten dioten kaltea surfari egiten dioten ekarpena baino handiagoa dela.

Hirigintza Sostengarriko zinegotzi ordezkariaren arabera, halako proiektu batek surfaren aktibitatea bera hobetzen lagunduko du. Bere hitzetan, surfa kirol bezala bultzatzea erabakia dute Donostiako Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta

presenta la siguiente moción, para que sea tratada por el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios a las Personas de 18 de enero de 2021.

JUSTIFICACIÓN

El pasado 31 de diciembre un periódico local anunció que el Gobierno Municipal de San Sebastián pretende retomar el proyecto de construcción de un surf park en la ciudad. La pretensión de crear una infraestructura de este tipo no es nueva, ya que en 2018 el entonces teniente de alcalde, Ernesto Gasco, manifestó su deseo de construir una ola artificial como "un avance en la profesionalización del mundo del surf".

En la Comisión de Servicios a las Personas del 18 de enero de 2021, la concejala delegada de Urbanismo Sostenible, Nekane Arzallus, confirmó la noticia. De acuerdo con la pretensión actual, el proyecto se ejecutará en la parcela de Antondegi, situada en las inmediaciones de Martutene, y, para ello, el Gobierno Municipal iniciará el procedimiento preceptivo de tramitación de la modificación del Plan General.

Inmediatamente, la noticia generó un estrépito en las redes sociales. De hecho, la asociación sin ánimo de lucro creada por surfistas europeos, Surfrider, se ha posicionado en 2020 en contra de estas infraestructuras. Básicamente, afirman que el impacto medioambiental de los surf park es mayor que su aportación al surf.

Según la concejala delegada de Urbanismo Sostenible, un proyecto de este tipo contribuirá a mejorar la propia actividad del surf. Según sus palabras, el Ayuntamiento de San Sebastián, el Gobierno Vasco y la Fundación Basque Team,

Basque Team Fundazioak, eta Surf City Donostia klusterrean biltzen diren orotariko eragileek nahi dute hirian kirol hau sustatzea –zehazki esan gabe kluster horretan dauden eragileek begi onez ikusten duten halako azpiegitura bat–, eta hirian, kirol honen bueltan lan egiten duten enpresa ugari dagoela.

así como los diversos agentes que se reúnen en el clúster Surf City San Sebastián, han decidido promocionar este deporte en la ciudad –sin mencionar expresamente si los agentes que participan en el clúster ven con buenos ojos una infraestructura de este tipo–. Asimismo, la concejala señaló que en la ciudad existen numerosas empresas que trabajan en torno a este deporte.

Surfrider elkartea ere jakitun da horrelako azpiegiturek surflari askoren entrenamendurako eta prestakuntzarako duten balioaz, baina hala ere, “olatuen igerilekuak eraikitzearen aurka” daude. Hiru puntutan laburbildu dituzte beren arrazoi nagusiak: ur kontsumo handia behar dute azpiegitura hauek funtzionatzeko; energia asko eskatzen du azpiegitura hau martxan edukitzeak; eta azkenik, igerileku hauek eraikitzeak nekazaritzara bideratutako edo naturalak diren lurzoruaren artifizializazioa (igerilekua, parkingak, errepideak) dakarte. Bada, artifizializazio honek bultzatzen du animalien habitatak suntsitzea eta bioaniztasunaren desagertzea.

La asociación Surfrider es consciente del valor que poseen este tipo de infraestructuras para el entrenamiento y la formación de muchos surfistas, pero se oponen a la construcción de piscinas de olas. La citada asociación ha resumido las principales razones de su postura en tres puntos: se requiere un alto consumo de agua para el funcionamiento de estas infraestructuras; se precisa una gran cantidad de energía para su puesta en marcha; y por último, la construcción de estas piscinas supone la artificialización (piscina, parkings, carreteras) de un suelo destinado a la agricultura o a un espacio natural. Por tanto, esta artificialización favorece la destrucción de los hábitats faunísticos y la desaparición de la biodiversidad.

Zentzu honetan, eta Donostiari dagokionean, gainera, Itsas Enara eta SEO/BirdLife ornitologia-elkarteek ohartarazi dutenez, Antondegi eremuan olatu artifizialen parke bat eraikitzeak "arriskuan jarriko lituzke babes bereziko erregimenean dauden hegazti asko". Bi kolektiboek "kezka" agertu dute proiektuaren inguruan; izan ere, Antondegiko gainak, Donostiako hiri-sarearen kanpoaldean eta Astigarragarekin mugan dagoenak, "balio ekologiko handia du" ikuspuntu ornitologikotik.

En este sentido, y en lo que respecta a San Sebastián, las sociedades ornitológicas Itsas Enara y SEO/BirdLife también han advertido de que la construcción de un parque de olas artificiales en la zona de Antondegi "pondría en peligro a muchas aves en régimen de especial protección". Ambos colectivos han mostrado su "preocupación" por el proyecto, ya que el alto de Antondegi, situado en la periferia de la trama urbana de San Sebastián y en el límite con Astigarraga, "posee un alto valor ecológico" desde el punto de vista ornitológico.

Surfrider Fundazioak oroitzen du “eragin katastrofikoa” dutela lurzoruaren artifizializazioak, baliabide naturalen gehiegizko ustiaketak edo berotegi-efektuko gasen

La fundación Surfrider recuerda que la artificialización del suelo, la sobreexplotación de los recursos naturales o las emisiones de gases de efecto invernadero tienen un “efecto

isurketak. “Gainera, ekosistemak puskatzeak areagotu egiten du gizarteek arrisku naturalekiko duten ahultasuna, izan ekaitzekiko edo muturreko fenomeno meteorologikoekiko. Hurrengo urteetan areagotu egingo direla aurreikusia dagoela oroitu dute.

catastrófico”. Además, la fragmentación de los ecosistemas aumenta la vulnerabilidad de las sociedades ante los riesgos naturales, como las tormentas o los fenómenos meteorológicos extremos. Recuerdan que en los próximos años se prevé una intensificación de estos fenómenos.

Donostiako Udal Gobernuak ere badaki hori horrela dela. “Klima Larriadiaren Adierazpenari lotutako ekintza proposamena” dokumentuko “Lurralde aldetik” atalean, besteak beste, ondorengoa jasotzen da: “Plan Orokor berria, irizpide klimatikoekin. Lurralde berrien okupazioa murriztea eta 2010eko Plan Orokorrean urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoru batzuk egikaritzeari uko egitea”.

El Gobierno Municipal de San Sebastián también es consciente de ello. En el apartado “Territorio” de la “Propuesta de actuaciones unidas a la declaración”, se recoge, entre otros, lo siguiente:“Nuevo Plan General con criterios climáticos. Restringir la ocupación de nuevos territorios y renunciar a la ejecución de parte de los suelos clasificados como urbanizables en el Plan General de 2010”.

Klima aldaketak izan behar du gure garapen ereduak birpentsatzeko aukera, baliabide naturalen erabilerak xumeagoak izan daitezen, baita gure inguruko ekosistemekin dugun harremana berriz ere pentsatzeko. Hain zuzen ere, horretarako deklaratu ditugu Klima Larrialdiak. Eta horrek, Donostiako adierazpenak jasotzen duen bezala, hiri-ereduaren inguruko gogoeta sakona egin eta berau berregokitzea exijitzen du.

El cambio climático debe ser la oportunidad de repensar nuestros modelos de desarrollo para que el uso de los recursos naturales sea más sencillo, y también la oportunidad de repensar nuestra relación con los ecosistemas de nuestro entorno. Es precisamente por ello por lo que hemos declarado la emergencia climática. Y este hecho, tal y como se recoge en la declaración de San Sebastián, exige una profunda reflexión y una readecuación del modelo urbano.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por todo lo expuesto anteriormente, el concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Antondegi eremuetan egin asmo den proiektuak beharrezkoa duen Plan Orokorreko aldaketa tramitazioa bertan behera uztea, Donostiako Klima Larrialdiaren Adierazpenak jasotzen dituen erronken norabidean lehen urrats bezala.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a suspender la tramitación de la modificación del Plan General que se precisa para la ejecución del proyecto que se pretende llevar a cabo en la zona de Antondegi, como primer paso para alcanzar los retos que se recogen en la Declaración de Emergencia Climática de San Sebastián.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián

dio Udal Gobernuari hiriko surfaren sektorea, ingurumenaren zaintza eta jasangarritasuna aintzat hartuta garatzeko proiektu alternatiboak pentsatu eta egikaritu ditzan, betiere Donostiako hiriaren erresilientzia gaitasuna hobetze aldera, lurrak artifizializatzeko eta ur-baliabideak erabiltzeko proiektuek hala nola olatuen igerilekuek lurraldeek klima-aldaketan duten zaurgarritasuna areagotzen lagunduko baitute.

Donostian, 2021eko urtarrilaren 22an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

insta al Gobierno Municipal a idear y ejecutar proyectos alternativos para el desarrollo del sector del surf urbano en clave de preservación y sostenibilidad del medio ambiente, con el fin de mejorar la capacidad de resiliencia de la ciudad de San Sebastián, ya que los proyectos de artificialización de tierras y la utilización de recursos hídricos como las piscinas de las olas contribuirán a aumentar la vulnerabilidad de los territorios ante el cambio climático.

San Sebastián, 22 de enero de 2021

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Mikel Lezama Zubeldia y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**II.2.7. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, jendaurrera aterata edo alegazioak izapidatzeko aldian dauden hirigintzako espedienteak eskuratzeari buruzkoa.**

**II.2.7. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el acceso a los expedientes urbanísticos en período de exposición público o en trámite de alegaciones.**

“EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkezten nahi dio Udalbatzari, Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordeak urtarrilaren 18an izan zuen bileran jendaurrera aterata izateko aldian edo alegazio izapidea egitekoan diren hirigintzako espedienteetara jotzea dela eta egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTFIKAZIOA

Jurisprudentzia ugariaren arabera, herritarrek, pertsona fisikoak izan nahiz pertsona juridikoak izan, aitortua dute hirigintzaren arloan akzio publikoa egiteko eskubidea. Aitorpen horrek esan nahi du ez dela legitimazio berezirik behar, eta, beraz, hirigintzaren arloko prozesu bat abian jartzeko herritarrek egiten dituzten jarduerak legezkoak direla eta zuzenbidearekin bat datozela, nahiz eta edozein herritarrek hirigintza-legezkotasuna zaintzeko duen interesa baino ez aipatu arrazoitzat.

Hori dela eta, edozein administrazio jarduerari buruzko informazio eskubidea den arren, oraindik eta garrantzia handiagoa du eskubide horrek hirigintza zuzenbidean; izan ere, funtsezkoa baita hor legezkotasuna nahiz hirigintza antolatzeko eta kudeatzeko planak eta gainerako tresnak betetzen direla kontrolatzea, eta edozein pertsona baita hor interesdun, hala dela egiaztatzeko legitimazio berezirik izan beharrik gabe.

Era berean, informazio eta espedienteak ikusi eta eskuratzeko eskubidea zuzen-zuzenean lotuta daude ekintza publikoarekin. Eta horrek

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL sobre el acceso a los expedientes urbanísticos en período de exposición pública o en trámite de alegaciones. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 18 de enero de 2021.

JUSTIFICACIÓN

Existe una abundante jurisprudencia que sostiene que la ciudadanía, incluyendo tanto a las personas físicas como a las jurídicas, tienen reconocido el ejercicio de la acción pública en materia urbanística. Dicho reconocimiento implica que no se requiera una especial legitimación; de manera que las actuaciones de la ciudadanía dirigidas a instar a poner en marcha un proceso en materia urbanística son lícitas y ajustadas a derecho, aunque sólo se invoque el interés de cualquier ciudadano en la preservación de la legalidad urbanística.

Por todo ello, si existe un derecho de información, genéricamente referido a cualquier actuación administrativa, dicho derecho tiene una especial relevancia en el derecho urbanístico, donde es fundamental el control de la observancia de la legalidad, así como de los planes y demás instrumentos de ordenación y gestión urbanística, y donde cualquier persona tiene la condición de interesado sin necesidad de acreditar una legitimación especial.

Precisamente este derecho de información y acceso a los expedientes está directamente relacionado con la acción pública. Ello implica

dakarrena da espediente administratiboetara jo eta haien kopia izateko eskubidea edukitzea.

que se dispone del derecho de acceso y de disponer copia de los expedientes administrativos.

Zehapen espedienteetan, legeztatze errekerimenduetan, betearazpen aginduetan eta abarretan, entzunaldiaren izapidea ere nahitaez izan behar da, eta horietan derrigor bermatu behar da, alegazioak egiteko emandako epearen barruan, aipatutako hirigintza espedienteetara jotzeko bide guztia izatea.

Obviamente, en el caso de los expedientes sancionadores, requerimientos de legalización, órdenes de ejecución... donde resulta igualmente preceptivo el trámite de audiencia, se hace preciso garantizar, dentro del plazo conferido para hacer alegaciones, la plena disponibilidad de acceso a los mentados expedientes urbanísticos.

Hala ere, kexa batzuk ailegatu dira gure bulegora, esaten dutenak informazioa eskuratzeko eskubide hori murritza izaten ari dela orain, eta horrek erasan egiten dio ekintza publikoa gauzatzeko izan behar den informazioa eskuratzeko eskubideari, bai eta, batzuetan, entzunaldi izapideari edo alegazio aldiari ere.

Sin embargo, ha llegado a nuestro despacho las quejas por el hecho de que en la actualidad dicho acceso a la información está siendo limitado, lo que afecta al derecho de acceso a la información preciso para el ejercicio de la acción pública, así como, en su caso, al trámite de audiencia o período de alegaciones.

Horri buruzko interpelazioa egin eta Hirigintza Iraunkorreko ordezkariak esan zuen herritarrek badutela kexak eta iradokizunak aurkezteko modu bat, eta “frogatzeko moduan egiaztatuz gero” ezin izan dela dokumentaziora jo legeak hartarako jarrita daukan denboran, kontuan hartuko dela gorabehera hori epea zenbatzeko orduan.

Interpelada al respecto la delegada de Urbanismo Sostenible consideró que la ciudadanía dispone de un mecanismo para formular quejas y sugerencias, que no se había recibido ninguna al respecto y que, en el caso de que “se probase fehacientemente” que no se ha podido acceder a la documentación en el período legal estipulado para ello, dicha circunstancia se tendría en cuenta a la hora del cómputo del plazo.

Dagoen arazoa da zera agintzen duela legeak, administrazioak duela jendaurrera aterata edukitzeko izapidea bete behar duten espediente osoak herritarren eskura izateko betebeharra, eta horrek esan nahi duena da aldatu edo onartu nahi den dokumentu edo testu arauemailea ez eze, hura osatzen duten txosten tekniko guztiak ere izan behar direla herritarraren eskueran.

El problema es que la ley prescribe que es la administración la que tiene la obligación de tener a disposición de la ciudadanía los expedientes completos sujetos a trámite de preceptiva exposición pública, lo que implica, no sólo que está a disposición de la misma el documento o texto normativo que se pretende modificar o aprobar, sino también todos los informes técnicos que forman parte del mismo.

Beraz, ez dago ametitzerik Udal Gobernu

No resultando de recibo que, por parte del

taldeak nahi izatea herritarra bera izatea frogatzeko moduan erakutsi behar duena ezin izan duela espediente osoa garaiz eta moduz eskuratzerik izan.

Horiek horrela direla, hauxe da EH BILDU udal taldearen KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hartu behar diren neurriak hartzeko jendaurrera atera izateko aldian diren arau-dokumentuak telematikoki kontsultatu ahal izateko herritarrek, agiri horiek osorik eskuratu ahal izateko –horiek osatzen dituzten txosten tekniko guztiak barruan direla– eta kronologikoki ordenatuta emateko.

2.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, alegazio aldian diren administrazio prozeduretan, teknikoki eta juridikoki bideragarri jotzen den sarbide-gako edo beste prozeduraren bat eratu eta emateko haietara jotzeko bidea prozedura horietan interesdun izatea aitortuta duten pertsona fisikoei edo juridikoei.

Donostia, 2021eko urtarrilaren 22a

Sinatua: Ricardo Burutaran Ferré,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia."

equipo de Gobierno Municipal, se pretenda que sea la ciudadanía la que tenga que “demostrar fehacientemente” que no han podido acceder al expediente completo, en tiempo y forma.

Por todo ello, el grupo municipal de EH BILDU presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que implemente las medidas oportunas para que los documentos normativos que se encuentren en fase de exposición pública, puedan ser consultados de manera telemática por la ciudadanía y a que dicho acceso se facilite de manera completa, con la incorporación de todos los informes técnicos que forman parte del mismo, así como a que se facilite el mismo ordenado cronológicamente.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, en el caso de procedimientos administrativos en fase de alegaciones, se permita, mediante la generación de claves de acceso u otro procedimiento, que se considere viable técnica y jurídicamente su acceso a las personas físicas o jurídicas que tengan reconocido su condición de interesadas en el mismo.

En Donostia, a 22 de enero de 2021

Sin: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del Grupo Municipal de EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Ricardo Burutarán Ferré, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Mikel Lezama Zubeldia y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, EH BILDU eta ELKARREKIN DONOSTIA taldeek aurkeztua, Ekialdeko Barrutiaren aurrekontua kudeatzeko moduari buruzkoa.**

“Zigor Etxeburua Urbizuk eta Marta Huarte Pañok, hurrenez hurren EH Bildu eta Elkarrekin-Donostia udal taldeetako zinegotziek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten dute, Udalbatzan azter dadin. Mozioa, 2021eko urtarrilaren 18an, Ogasuneko batzordean, aztertutako interpelazioan dago oinarrituta.

JUSTIFIKAZIOA

Ekialdeko Barrutiaren aurrekontua kudeatzeko moduak zalantzak eragiten dizkigu, ez baitugu uste aski eraginkorra denik. Barrutiaren lehen bi urteetako aurrekontuek gorabehera handiak izan dituzte, eta kalte eta galera handiak eragin dizkio egitura berriari.

Barrutiak diru sail bat du esleitua erabakitako egitasmoak aurrera eramateko. Edonola, Barrutiak berak ez du diru sail horiek baliatzeko

**II.2.8. Moción de control, presentada por los Grupos EH BILDU y ELKARREKIN DONOSTIA, relativa a la forma de gestionar el presupuesto del Distrito Este.**

"Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, y Marta Huarte Paño, concejala del grupo municipal Elkarrekin-Donostia, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presentan la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Hacienda el pasado 18 de enero de 2021.

JUSTIFICACIÓN

La forma de gestionar el presupuesto del Distrito Este nos hace plantearnos ciertas dudas, ya que no creemos que sea lo suficientemente eficaz. Los presupuestos de los dos primeros años del Distrito han sufrido grandes incidencias y este hecho ha ocasionado daños y pérdidas importantes a la nueva estructura.

El Distrito tiene asignada una partida económica para llevar a cabo los proyectos acordados. Sin embargo, el propio Distrito no tiene la

aukerarik edo eskumenik, eta diruak Parte Hartzeko Sailean egoten dira. Egitasmoak aurrera eramateko prozedura korapilatsua da: Udalaren aurrekontu orokorra onartu ostean, Barrutiak erabaki egiten du zein egitasmo egin dagokion diru sailarekin. Hau da, egitasmo horiek ez dira egoten zehatz adierazita udal aurrekontu orokorrean. Gauzak horrela, egitasmoak gauzatu behar dituzten udal sailek ez dituzte urteko beren aurreikuspenetan izaten Barrutian egin beharreko egitasmoak, eta horrek epeak luzatzea eragiten du.

posibilidad ni la competencia de hacer uso de la citada partida, ya que las cantidades económicas consignadas en ella se encuentran en el Departamento de Participación. El procedimiento para llevar a cabo los proyectos es complicado: una vez aprobado el presupuesto general del Ayuntamiento, el Distrito decide los proyectos que se ejecutarán con su partida. Es decir, estos proyectos no están detallados en el presupuesto general del Ayuntamiento. En este sentido, los departamentos municipales encargados de ejecutar los proyectos no contemplan en sus previsiones anuales los proyectos que se van a ejecutar en el Distrito, lo que supone una dilatación de los plazos.

Urteko lehen hilabeteetan, Parte Hartzeko Sailak helarazi egiten dizkie egitasmoak dagozkien udal sailei, ezagutu eta abian jar ditzaten. Harreman horretan ere denbora behar izaten da. Horren guztiaren ondorioz, Barrutiko egitasmoak gauzatzeko epeak estutu egiten dira, eta egitasmoak egin gabe geratzeko arriskua handitu egiten da. Prozedura hori are gehiago korapilatzen da egitasmoaren bultzatzailea Udaletik kanpoko eragile bat delarik, parte hartzeko aurrekontuetan gertatu den bezala.

En los primeros meses del año, el Departamento de Participación traslada a los departamentos municipales los proyectos que les corresponden, para su conocimiento y puesta en marcha. Esta relación también requiere tiempo. Como consecuencia de todo ello, se reducen los plazos de ejecución de los proyectos del Distrito y se aumenta el riesgo de que los proyectos queden sin ejecutarse. Este procedimiento se complica aún más cuando el promotor del proyecto es un agente externo al Ayuntamiento, como ha ocurrido en los presupuestos participativos.

Urtarrileko batzordean, EH Bilduk galdetu zion Ogasuneko zinegotziari zer dela eta Udal Gobernuak ez duen prozedura arinago eta erosoago bat baliatzen Ekialdeko Barrutiaren aurrekontua baliatzeko, eta zer aukera ikusten duen diru saila erabiltzeko prozedura hori eraginkorragoa izan dadin. Zinegotziaren arabera, prozedura eraginkorragoa izateko, Barrutiak bere egitasmoak erabaki beharko zituen udal aurrekontu orokorra erabaki baino lehen, bertan ageri daitezen egitasmoak, dagozkien udal sailen ekimenekin batera. Horrela, udal sail bakoitzak edukiko luke

En la comisión de enero, EH Bildu preguntó al concejal de Hacienda el motivo por el que el Gobierno Municipal no emplea un procedimiento más ágil y cómodo para hacer uso del presupuesto del Distrito Este. Asimismo, le preguntó por las alternativas que considera viables para que este procedimiento de uso del presupuesto resulte más eficaz. Según el concejal, para conseguir un procedimiento más eficaz, el Distrito debería decidir sus proyectos antes de la aprobación del presupuesto general del Ayuntamiento, de manera que puedan incorporarse en él, junto con las iniciativas de

egitasmo bakoitzaren ardura urte hasieratik (udal aurrekontuaren ohiko egutegia berreskuratuz gero). Gogoan izan behar da, gainera, Barrutien Organo Araudiak 17. artikuluan jadanik ezartzen duela Ogasun Zinegotzigoak eskatu beharra diola barrutiko buruari Barrutiaren beharrei buruzko txosten bat, udal aurrekontuak egiteko aldiaren hasieran.

los departamentos municipales correspondientes. De esta forma, cada departamento municipal asumiría la responsabilidad de cada uno sus proyectos desde principios de año (si se recuperase el calendario ordinario del presupuesto municipal). Hay que tener en cuenta, además, que el Reglamento Orgánico del Distrito ya establece en su artículo 17 que la Concejalía de Hacienda debe solicitar a la presidencia del Distrito un informe sobre las necesidades del distrito al inicio del periodo de elaboración de los presupuestos municipales.

Gauzak horrela, eta jakinik Barrutiaren 2020ko aurrekontua ez dela gauzatu, baina diru sail horrekin egin beharreko egitasmoak dagoeneko zehaztuta daudela, aukera ezin hobea dugu 2021eko aurrekontu orokorrean txertatzeko Barrutiaren 2020ko egitasmoak, eta horrela, prozedura eraginkorrago batekin hasteko, behingoagatik.

Teniendo en cuenta lo expuesto, y sabiendo que el presupuesto del Distrito del 2020 no se ha ejecutado pero que los proyectos que debían acometerse con la citada partida ya se encuentran detallados, se nos presenta una oportunidad excepcional para incorporar al presupuesto general los proyectos del 2020 del Distrito, y de esta manera poder iniciar, de una vez, un procedimiento más eficaz.

Prozedura berri hori egokitzat joz gero, eta udal aurrekontuaren ohiko egutegiari jarraiki, Ekialdeko Barrutiko udalbatzarrak prest izan beharko lituzke 2021eko azken hiruhilekoan hurrengo urterako egitasmoak; eta modu berean urtez urte. Jakina, hori guztia egin beharko litzateke Barrutiaren udalbatzarraren onespenarekin.

Si se considera oportuno este nuevo procedimiento, y siguiendo el calendario ordinario del presupuesto municipal, la Junta del Distrito Este debería tener preparados los proyectos para el próximo año en el último trimestre de 2021, y año tras año se procedería de la misma manera. Todo ello, lógicamente, con el visto bueno de la Junta del Distrito.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por todo lo expuesto, el concejal y la concejala abajo firmantes presentan la siguiente

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udal Gobernuari eska diezaiola Ekialdeko Barrutiko buruari, Barrutien Araudi Organikoak ezarri bezala, Barrutiaren beharrei buruzko txosten bat, 2021eko udal aurrekontuak

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal de San Sebastián a que solicite a la presidencia del Distrito Este, tal y como establece el Reglamento Orgánico del Distrito, un informe relativo a las necesidades del Distrito

egiteko aldiaren hasieran.

2. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udal Gobernuari adostu dezala Ekialdeko Barrutiko udalbatzarrarekin 2021eko Barrutiaren aurrekontua baliatzeko prozedura arinago eta eraginkorrago bat, hurrengo urteetan ere baliatzeko modukoa izango dena.

3. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udal Gobernuari malgutasuna izan dezala Ekialdeko Barrutiaren aurrekontua erabaki eta gauzatzeko garaian, pairatu dituen gorabehera guztiak kontuan izanik.

Donostian, 2021eko urtarrilaren 22an.

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

Marta Huarte Paño
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia"

al inicio del periodo de elaboración de los presupuestos municipales del 2021.

2. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal de San Sebastián a acordar con la Junta del Distrito Este un procedimiento más ágil y eficaz para la ejecución del presupuesto del Distrito del 2021, que se pueda seguir utilizando en los próximos años.

3. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal de San Sebastián a que actúe con flexibilidad a la hora de decidir y ejecutar el presupuesto del Distrito Este, teniendo en cuenta todas las vicisitudes por las que ha atravesado el Distrito.

En San Sebastián, a 22 de enero de 2021

Zigor Etxeburua Urbizu,
concejal del grupo municipal EH Bildu

Marta Huarte Paño
concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia."

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Marta Huarte Paño andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Marta Huarte Paño, D. Borja Corominas Fisas y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**8. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, ELKARREKIN DONOSTIA Taldeak aurkeztua, Txomin auzoko hutsuneak direla eta.**

“Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta TXOMIN AUZOAN DIREN GABEZIA BATZUEN GAINEKO KONTROL MOZIO hau dakar.

JUSTIFIKAZIOA

**II.2.9. Moción de control, presentada por el Grupo ELKARREKIN DONOSTIA, relativa a las deficiencias en el barrio de Txomin.**

“Aitzole Araneta, portavoz del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL RELATIVA A LAS DEFICIENCIAS EN EL BARRIO DE TXOMIN

JUSTIFICACIÓN

Txominenea auzoa asko aldatu eta hobetu da azken urteotan. Oraindik, ordea, ez da erabat bukatu eraldatze eta hobetze prozesua, eta arazo batzuk ere ekarri dizkie hango bizilagunei, kasu egin gabe direnak ere bai, batzu-batzuk.

El barrio de Txomin Enea ha sufrido un proceso de transformación y mejora durante los últimos años. Sin embargo, dicho no proceso que todavía no ha finalizado, ha traído consigo problemáticas para las vecinas y vecinos que no siempre han sido atendidas.

Edozein obrak sortzen dituen eragozpenez gain, badira batzuk auzotar batzuk oso kritiko izatera eraman dituztenak, bai auzoa berriz urbanizatzeko prozesuagatik, bai eta obrak egiteko moduagatik ere. Eta, horrezaz gainera, gabezia batzuk ere badirela salatzen dute orain.

Además de las molestias típicas derivadas de cualquier obra, hay algunos vecinos muy críticos con todo el proceso de reurbanización del barrio y con como ha sido la ejecución de las obras. Pero además, actualmente denuncian diferentes deficiencias del barrio.

Esate baterako, Udalak dagoeneko hartuta duen toki batean, bizilagunak kexu dira argi gutxi dagoelako, denean berdin egiten ez duelako eta toki batzuk erabat ilunpean uzten dituelako. Eta argirik ez dagoenez, bizilagunek esan dute hainbat gertakari izan direla gauez: baten batzuk sartu omen dira etxebizitza batzuetan, auzoan den Ogiberri dendan ere sartu egin omen dira gauez, arrastoak eginda azaldu omen dira kotxeak goizean… Horrek segurtasun-falta irudipena eragin die bizilagunei, batez ere emakumezkoei, eta, bereziki, gertatu diren gauza batzuk geratu eta gero; izan ere, auzotarrek kontatzen dutenez, bi ezezagun auzoko emakume bat jazartzen saiatu ziren gau batean.

Por ejemplo, en la zona ya recepcionada, las vecinas y vecinos se quejan de una iluminación deficiente, que funciona de manera irregular dejando siempre alguna zona del barrio totalmente a oscuras. Con esta falta de iluminación los vecinos relatan que han ocurrido varios incidentes de noche: personas desconocidas han debido entrar en varios pisos, han entrado de noche en el ogiberri del barrio, coches han amanecido rallados… Esto ha generado una sensación de inseguridad en los vecinos, y especialmente de las vecinas a caer lanoche, sobre todo después de algún incidente ya acaecidos, como el que reportan los vecinos, donde dos desconocidos intentaron acosar a una vecina ya caída la noche.

Auzoan diren beste akats batzuen beste adibide bat karraskariak agertzea da. Kasu honetan (ez da lehenengo aldia), badirudi karraskariak azaltzeko arrazoia eraikinak gaizki errematatuta izatea dela, hutsuneak utzi eta, hartara, karraskariak etxeen barruetara sartu eta habia egiteko modua jarrita. Era berean, etxeen inguruko berdeguneak kasu egin gabe izateak ere (“belarra moztu gabe, oihana ematen dutela”, auzotarrek berek dioten bezala) ez du lagunduko, seguru asko,

Otro ejemplo de deficiencias en el barrio es la aparición de roedores. En esta ocasión (no es la primera vez que ocurre), dicha aparición de roedores parece debida a que los edificios están mal rematados, dejando huecos que facilitan el acceso de esos roedores interior de los edificios y facilitando que puedan anidar en los mismos. Asimismo, la falta de mantenimiento de las zonas verdes aledañas a los edificios que como indica el propio vecindario «no se cortan y parecen selvas»,

fenomeno horri atzera eginarazten.

Baina, horrez gainera, Txomineneko bizilagunak kexu dira komunikazio txarra izan delako Udalarekin obrak egiteko prozesu osoan eta orain bertan ere. Hori dela eta, salatu dute Gobernu honek ez duela borondaterik auzoko bizilagunen elkartearekin harremanetan jartzeko, haiek auzoan diren arazoen gainean eskatzen dituzten gauzei kasu egin eta konpontzeko bidea jartzeko.

Horrenbestez, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hartu behar diren neurriak hartzeko Txominenean argirik ez izatearena lehenbailehen konpontzeko, segurtasun falta sortzen duelako eta dagoeneko gorabehera batzuk ere eragin dituelako horrek.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hartu behar diren neurriak hartzeko Txomineneko obrak egiten ari den enpresak obrak ondo errematatzeko eta auzotarren erreklamazioei kasu egiteko.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio bilera egiteko Txomineneko bizilagunekin eta komunikazio bide arin bat jartzeko hango auzo elkartearekin, auzoko obrek eragindako arazoei aurre egiteko.

Donostian, 2021eko urtarrilaren 22an

probablemente no ayude a contener este fenómeno.

Pero además de lo anterior, las vecinas y vecinos de Txomin se quejan de la mala comunicación que ha habido con el Ayuntamiento durante todo el proceso de las obras y que sigue habiendo a día de hoy. Por ello, denuncian la falta voluntad de este Gobierno de entablar una relación con la asociación de vecinos del barrio que permita atender y poner solución a sus peticiones en relación con las problemáticas del barrio.

Por todo ello presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a tomar las medidas necesarias para solucionar cuanto antes el problema de la falta de iluminación en Txomin Enea que genera inseguridad en el barrio y que ha provocado ya varios incidentes.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a tomar las medidas necesarias para que la empresa que está ejecutando las obras de Txomin Enea cumpla con los remates pendientes de la obra y atienda las reclamaciones de los vecinos del barrio.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a reunirse con las vecinas y los vecinos de Txomin Enea y a establecer un cauce de comunicación fluida con su asociación de barrio para atender sus diferentes demandas en relación con los problemas derivados de las obras en el barrio.

Donostia, a 22 de Enero de 2021

Sinatua: Aitzole Araneta,
Elkarrekin Donostia udal taldearen
bozeramailea"

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin
Donostia"

Eztabaida hasita, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Marisol Garmendia Beloqui andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas y D.ª Marisol Garmendia Beloqui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, EH BILDU eta ELKARREKIN DONOSTIA taldeek aurkeztua, Azora putre funtsaren jabetzako higiezinen maizterren egoerari buruz.**

"Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegik eta EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dien babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau dakarte, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN batzordeak hilabete honetan izan duen bileran Inmobiliaria Vascongada-Azoraren maizterren egoeraz egin dituzten interpelazioen ondorioz.

**II.2.10. Moción de control, presentada de forma conjunta por los Grupos EH BILDU y ELKARREKIN DONOSTIA, relativa a la situación de personas inquilinas de inmuebles propiedad del fondo buitre Azora.**

"Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, y Ricardo Burutarán Ferré, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presentan la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de sendas interpelaciones presentadas en comisión de SERVICIOS A LAS PERSONAS del presente mes, relativas a la situación de las personas inquilinas de la

Inmobiliaria Vascongada-Azora.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 8an bete zen urtebete Inmobiliaria Vascongadak zituen akzio guztiak Azora funts inbertitzaileari saldu ziola. Denbora horretan denean, zalantza handia sortu die salmenta horrek higiezinen agentzia horrekin alokairu-kontratua zuten 320 familiei, alokairu-kontratuen baldintzei eragin dielako salmentak, eta, ondorioz, bizileku egonkortasuna eta hiri honetan bizitzeko proiektua urratu baitie.

Hala, Azoraren Maizterren Elkarteko lehendakariak osoko bilkura osatzen duten udal taldeengana jo du orain dela gutxi, eta berriro azaldu digu maizterrek daukaten egoera. Bidalitako idatzian jakinarazi dute oraingo jabea, Azora putre funtsa, "isilbidezko errenta luzapena" aplikatzen ari dela kontratuak bukatutakoan; errenta jartzekoan hitzartutako epe bererako luzatzen, alegia, kontratuak. Prozedura hori Hiri Errentamenduei buruzko 29/1994 Legearen 9. artikuluan jarritako betebeharra ez betetzeko egiten dute, zeren, lege horren arabera, pertsona juridikoekin egiten diren kontratuen gutxieneko iraupenak 7 urte izan behar du.

Alde horretatik, gogorarazi dezagun Kode Zibilaren 6.4 artikuluak galarazi egiten duela antolamenduan xedatutakoaren kontrako emaitza lortu nahi duten egintzak egitea, lege-iruzurrez egindakotzat har daitezkeela jotzen du eta.

Egoera horrek, jakina, alarma piztu du erasandako bizilagunen artean; izan ere,

JUSTIFICACIÓN

El pasado 8 de enero se cumplió un año desde que Inmobiliaria Vascongada vendiera el 100% de sus acciones al fondo inversor Azora hecho que ha provocado durante este tiempo gran incertidumbre a las 320 familias que tenían contrato de alquiler con esta inmobiliaria, ya que dicha compraventa ha afectado a las condiciones de sus contratos de alquiler, vulnerando su estabilidad residencial y, en consecuencia, su proyecto de vida en la ciudad.

El Presidente de la Asociación de vecinos Inquilinos de Azora se dirigió recientemente a los grupos municipales que componen el pleno para poner de manifiesto una vez más la situación en la que se encuentran los y las inquilinas. En el escrito remitido informan que la nueva propiedad, el fondo buitre Azora, está aplicando la "tácita reconducción" a la finalización de los contratos; es decir, la duración de los contratos se prorroga por períodos iguales a los estipulados a la hora de fijar la renta. Dicho proceder, se hace al objeto de evitar cumplir con la obligación establecida en el artículo 9 de la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos que dispone que, en el caso de las personas jurídicas, la duración mínima de los contratos será de 7 años.

En este sentido es preciso recordar que, el artículo 6.4 del Codigo Civil, prohíbe la realización de actos que persigan un resultado contrario a lo dispuesto en el ordenamiento al considerar que pueden ser considerados realizados en fraude de ley.

Lógicamente, esta situación genera alarma entre el vecindario afectado ya que la tácita

isilbidezko luzapenak ekarri dezakeena da edozein unetan burofaxa bidaltzea putre funtsak eta giltzak entregaraztea edo alokairuaren prezioa neurriz kanpo igotzea maizterrei. Eta horrek, bistan da, egoera txarrean uzten ditu bizilagunak eta estuasun handia sortzen die.

reconducción puede provocar que en cualquier momento el fondo buitre mediante burofax exija al vecindario la entrega de llaves o una subida abusiva del precio del alquiler, lo que les coloca en una precaria situación, al tiempo que es causa de un gran desasosiego.

Azoraren Maizterren Elkarteak ikusi du funts hori ez dela Inmobiliaria Vascongadak zeraman alokairu politika bera eramateko konpromisoa betetzen ari, “isilbidezko luzapena” aplikatzen ari delako iaz bukatutako alokairu kontratu guzti-guztiei.

Constata por la mentada Asociación de inquilinos de Azora que el citado fondo no está cumpliendo con el compromiso explicitado de seguir actuando con la misma política de alquiler que anteriormente llevaba Inmobiliaria Vascongada, ante la sistemática aplicación de la “tácita reconducción” a los contratos de alquiler vencidos, a lo largo del pasado año.

Hori dela eta, bizilagunek eskatzen dute udal gobernua bitartekari gisa inplikatu dadila putre funtsaren aurrean; jokabide horri utzi, HELk jartzen duen eran berritu kontratuak eta KPIren arabera igotzeko alokairuak.

Es por lo que, ante esta situación, el vecindario reclama la implicación del gobierno municipal como mediador frente al fondo buitre de tal manera que se acabe con estas prácticas, se renueven los contratos según lo que establece la LAU, y se aplique un incremento de los alquileres de acuerdo al IPC.

Era berean, Donostian etxebizitza eskuratzeko zeinen arazo larria den kontuan hartuta, Azoraren maizterrek proposatu dute hark itxita, hutsik, dituen etxebizitzak txukundu eta berriro alokairuan jartzea, Inmobiliaria Vascongadak egiten zuen bezala.

Asimismo, y teniendo en cuenta la grave problemática de acceso a la vivienda que hay en Donostia, los inquilinos de Azora proponen que las viviendas vacías que mantiene Azora cerradas, sean adecentadas y de nuevo puestas en alquiler, en línea con la práctica habitual que mantenía inmobiliaria Vascongada.

Batzordean Hirigintza Iraunkorreko zinegotzi ordezkariak elkarte horrekin etengabe komunikazio edo harremanetan izateaz emandako erantzuna gorabehera, iritzi hori ez dator bat, inola ere, elkarte horretakoek adierazitakoarekin.

A pesar de la respuesta dada por la concejala delegada de Urbanismo Sostenible en Comisión, sobre la existencia de una comunicación o contacto permanente con la citada Asociación, lo cierto es que dicha consideración, no coincide en modo alguno con lo manifestado por los mismos.

Bestalde, elkarte horrek laguntza eskatzen dio Udalari, batetik, jabeari agintzeko bere

Asimismo la citada Asociación también está demandando del Ayuntamiento, su auxilio para

berdegunea kasu eginda edukitzeko, eta, bestetik, uraren eta saneamenduaren ordainagiriak etxebizitza bakoitzari berea aparte jarrita bidaltzeko ere.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio bitartekari lana egin dezala Azoraren maizterren eta aipatutako funtsaren artean, familia horiek Azorak erositako etxebizitza horietan bizitzen jarraitu ahal izateko.

2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio Azorari eskatzeko bukatu ahala berritzeko –HELn jarritako iraupenaren arabera– maizterrekin egindako kontratuak, eta eusteko alokairuaren prezioari, kontsumorako prezioen indizearen (KPI) arabera berrituta, hala tokatzen bada.

3. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio Azorari eskatzeko Donostian hutsik dituen etxebizitzak txukundu eta alokairuan jartzeko berriro.

4. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio Azorari eskatzeko behar bezala kasu eginda edukitzeko dituen etxebizitzak eta gune komunak.

Sinatua: Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostiako zinegotzia

que requiera a la propiedad el mantenimiento de la zona verde, de su titularidad, así como su ayuda para que los recibos de agua y saneamiento se hagan de forma desagregada por viviendas.

Por todo lo antecedente, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a realizar una labor de mediación entre Inquilinos de Azora y el precitado fondo en aras a permitir que las citadas familias puedan continuar en las citadas viviendas adquiridas por Azora.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a que solicite a Azora la formalización de nuevos contratos a medida que vayan venciendo los contratos de los inquilinos e inquilinas, con arreglo al plazo de duración establecido en la LAU y a que mantengan el precio del alquiler, adaptado, en su caso, a la variación del Indice de precios al consumo (IPC).

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a que requiera a Azora para que las viviendas que dicho fondo tiene vacías en Donostia, sean adecentadas y puestas de nuevo en alquiler.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a solicitar a Azora un mantenimiento adecuado de las viviendas de su propiedad así como de las zonas comunes.

Fdo.: Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia

Sinatua: Ricardo Burutaran Ferré
EH Bilduko zinegotzia"

Fdo.: Ricardo Burutarán Ferré
Concejal de EH Bildu"

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señor/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Ricardo Burutaran Ferré, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**10. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**10. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

**10. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**10. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.11. Kontrol mozioa, ELKARREKIN DONOSTIA taldeak aurkeztua, Cocheras ondoan aurreikusitako parkea dela eta.**

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallasteguik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, autobusen garajearen ondoan egitekoak diren parkeko lanak atzeratu direla eta, hil honetako Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

**II.2.11. Moción de control, presentada por el Grupo ELKARREKIN DONOSTIA, relativa al parque previsto junto a Cocheras.**

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la interpelación correspondiente en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS del presente mes relativa al retraso en la ejecución del parque previsto junto a las Cocheras.

JUSTIFICACIÓN

2017ko maiatzaren 16an, Tokiko Gobernu Batzarrak Dbus-eko autobusen garajea handitzeko eta Mons pasealekuaren eta Fernando Sasian kalearen artean bide bat sortzeko proiektua onetsi zuen. Horrez gainera, iragarri zuen eremu horretan parke bat eta berdegune bat sortuko zituela. Orduan jakinarazi zuen obra hilabete batzuetan bukatu zitekeela.

El 16 de mayo de 2017 la Junta de Gobierno Local aprobó el proyecto para la ampliación de las Cocheras de Dbus, la creación de un nuevo vial entre Paseo de Mons y la calle Fernando Sasian, y anunció además la creación de un parque y zona verde en el mismo ámbito. En ese momento, se informó que la obra podría estar culminada en meses.

Hala ere, 2018ko ekainean esleitu zen obra, eta bost hilabeteko epea eman zen gauzatzeko; beraz, aurreikuspenean arabera, obrak aurtengo abendurako amaituko dira, eta orduan ekingo zaie gainerako eremua berdegune eta parke bihurtzeko lanei.

Sin embargo, la adjudicación de la obra se acordó en junio de 2018 con un plazo de ejecución de cinco meses, de modo que la previsión del final de la obra sería en diciembre de ese año y entonces arrancaría la transformación de la zona restante en zona verde y de parque.

Aldi berean, Udalaren MartxUP ekimenaren esparruan, bi donostiar gazteren *Bizi Bizia Berhezi* proiektuaren aldeko apustua egin zen 2018an. Proiektu horren helburua da orube hori parke bihurtzea, urte asko daramatza eta zabortegi bihurtua. Parkea diseinatzeko, etorkizuneko erabiltzaileek, hau da, inguruko adingabeek parte hartzeko prozesu bat egin zen.

Al mismo tiempo, y en el marco de la iniciativa del ayuntamiento MartxUP, se apostó en 2018 por el proyecto Bizi Bizia Berhezi de dos jóvenes donostiarras para transformar este solar, que lleva muchos años convertido prácticamente en vertedero, y reconvertirlo en un parque, cuyo diseño fuer realizado mediante un proceso participativo por sus futuros usuarios, esto es, por menores del entorno.

Gogoan izan behar da obrak hainbat atzerapen izan dituela. Hasieran, gobernuak adierazi zuen arazoak zeudela lurrarekin eta, gainera, eguraldi txarra egin zuela. Nolanahi ere, 2019ko ekainean ekin zitzaien berriro obrei, eta 2021eko urtarrilera arte ez dira burutu autobusentzako aparkalekua eta bide berria egiteko lanak. 2018ko ekainean aurreikusitako gauzatze epeekin bat, obrak bost hilabeteren buruan amaitu behar zuen, eta bi urte eta erdi ere igaro dira jadanik.

Es preciso recordar que la obra ha sufrido varios retrasos. En un principio, desde el gobierno se aludió a la existencia de problemas con el terreno y a las malas condiciones meteorológicas. En todo caso, tras retomar las obras en junio de 2019, no ha sido hasta enero de este año 2021 cuando han culminado las obras del aparcamiento para autobuses así como el nuevo vial. Teniendo en cuenta los plazos de ejecución previstos en junio de 2018 que indicaban que la obra culminaría en cinco meses, han llegado a transcurrir dos años y medio.

Kontuan hartuta amaitu direla Dbus-eko

A la vista de que las obras de ampliación del

autobusen garajea handitzeko eta bide berria egiteko lanak eta ez dela ezer aurreratu gainerako lursailean, Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariari horri buruzko interpelazioa egin genion batzordean, eta hark esan zuen “ez dagoela parkea egiteko aurrekontu partidarik”, 2017an iragarri bezala, eta, beraz, ez dela egingo saritutako proiektua.

Horrenbestez, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bete dezala iragarritakoa eta egin dezala, ahalik eta lasterren, Marrutxipiko autobusen garajearen ondoan egitekoak ziren parkea, hura sortzeko egin zen partaidetza bidezko proiektuari jarraituz.

Donostia, 2021eko urtarrilaren 22a.

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia"

aparcamiento de las cocheras de Dbus y del nuevo vial han concluido y de que no se había llevado a cabo ningún tipo de avance en el resto de la parcela, la concejala delegada de Proyectos Urbanos fue interpelada en comisión al respecto y ésta señaló que “no hay partida presupuestaria para la ejecución del parque” anunciado en el 2017, hecho que va a provocar que este proyecto premiado no se lleve a cabo.

Por todo ello presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a cumplir con lo anunciado y a ejecutar a la mayor brevedad el parque previsto junto a las Cocheras de Marrutxipi siguiendo el proyecto participativo desarrollado para su creación.

Donostia, de 22 de enero de 2021

Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia"

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte y D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)**

**PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.12. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Donostiako Alde Zaharreko bizilagun talde batek Udalinfon idatziz egindako salaketa dela eta.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko urtarrilaren 18an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Abenduaren 30ean Donostiako Alde Zaharreko Bizilagun talde batek idatzi bat aurkeztu zuen udalinfon eta udal taldeoi eskuz entregatu ziguten. Idatzian, azkeneko asteetan auzoan bizi duten honako egoera hau salatzen dute:

Donostiako Alde Zaharreko bizilagun talde bat gara. Gutako batzuk aspalditik ari gara Herritarren Harrera Sarearekin elkarlanean. Duela hilabete eta erdi gutxi gorabehera, Konstituzio Plazako Liburutegiko arkupeetan gaua igarotzen duten pertsonei laguntza ematen ari gara geure borondatez. Talde hori kezka partekatutik sortu zen, pertsona horiek egoera eskasean bizi direla egiaztatzean. Gure hasierako konpromisoa izan zen gauero pertsona horiek afari bero eta egoki bat izatea. Asteak igaro ahala, premia berriak sortu dira. Ahal izan ditugun moduan kudeatu ditugu, gure

**II.2.12. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la denuncia presentada por un grupo de vecinos de la Parte Vieja de San Sebastián por escrito en Udalinfo.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios a las Personas el día 18 de enero de 2021.

JUSTIFICACIÓN

El 30 de diciembre, un grupo de vecinos de la Parte Vieja de San Sebastián presentó un escrito en Udalinfo y nos lo entregó en mano a los grupos municipales. En el escrito, se denuncia la situación que se vive en el barrio en las últimas semanas:

Somos un grupo de vecinos y vecinas de la Parte Vieja donostiarra. Algunos de nosotros llevamos tiempo colaborando con la Red de Acogida Ciudadana. Desde hace aproximadamente un mes y medio, prestamos asistencia voluntaria a las personas que pernoctan en los soportales de la Biblioteca de la plaza de la Constitución. Este grupo surgió de la preocupación compartida, al comprobar que estas personas viven en una situación precaria. Nuestro compromiso inicial fue que todas las noches esas personas tuvieran una cena caliente y adecuada. Al pasar de las

borondateari eta Sarearen laguntzari esker. Behar horiek, funtsean, mantaz eta berokiz hornitzean laburbiltzen dira.

semanas, han surgido nuevas necesidades, que hemos gestionado como hemos podido, con la ayuda de nuestra voluntad y el apoyo de la Red. Estas necesidades se resumen, básicamente, en el suministro de mantas y abrigos.

Duela 15 bat egun, lehen "gonbidapena" jaso zuten handik alde egiteko. Gehienak Kontxako hondartzako hegaletan babestu ziren. Duela egun batzuk, itsas zakarrak harrapatu egin zituen, beren "babesleku berria" gabe utziz eta eman genizkien arropa eta mantak bustiz. Hori ikusita, Konstituzio Plazara itzultzea erabaki zuten. Azken egun hauetan, udaltzainen bisitak etengabeak izan dira. Azkena (oraingoz) abenduaren 30eko (asteazkena) 5: 45ean izan da, euriak eta hotzak egoera guztiz ahulean uzten zituen unean. Are gehiago, hegalkinera joan zirenean, segurtasunagatik ere ezin zirela han egon esan zieten.

Hace unos 15 días, estas personas recibieron la primera "invitación" para irse de allí. La mayoría se refugiaron en los voladizos de la playa de la Concha. Así,  hace unos días, la marejada les alcanzó, les dejó sin su "nuevo refugio" y les mojó la ropa y las mantas que les habíamos dado. Por ello, decidieron volver a la Plaza de la Constitución. En estos últimos días, las visitas de los agentes municipales han sido constantes. La última (hasta ahora) ha sido el miércoles, 30 de diciembre, a las 05:45 horas, en un momento en el que la lluvia y el frío les dejaba en una situación de completa debilidad. Es más, cuando fueron al voladizo, les dijeron que tampoco podían estar allí, por razones de seguridad.

Egoera jasanezin horren aurrean, gure gogoetak helarazi nahi dizkiegu alkate jaunari, udaleko talde politiko guztiei, sindikatuei, udaltzaingoari eta udaleko gizarte gaietarako sailari, eta balizko zorigaiztoko amaiera saihesteko behar diren neurriak har ditzatela eskatu nahi diegu. Negu gordineko egun hauetan, oso egoera larrian daude. Agintari eskudunei eskatzen diegu beharrezko baliabideak berehala aktiba ditzatela. Gizarte-ongizateko teknikariei bidaltzea, poliziei bidali beharrean, arazo larri horri benetako irtenbidea emateko. Halaber, premiazko laguntza aktibatzen den bitartean, udaltzaingoek eta garbiketa-zerbitzuek ez ditzatela jazarri eta Konstituzio plazako arkupeetan lo egin dezatela eskatzen dugu. Hiriko toki ez hain ikusgarrietara botatzea arazoari ez ikusiarena egitea da. Eta okerrena, anonimotasunean hiltzera kondenatzea da. Gure aldetik, haiei

Ante lo insostenible de la situación, queremos trasladar nuestras reflexiones al Sr. alcalde, a todos los grupos políticos municipales, a los sindicatos, a la Guardia Municipal y al departamento de asuntos sociales del Ayuntamiento, y solicitar que se tomen las medidas necesarias para evitar un final aciago. En estos días de crudo invierno, estas personas se encuentran en una situación muy grave. Pedimos a las autoridades competentes que activen inmediatamente los recursos necesarios. Que envíen a los técnicos de bienestar social, en lugar de enviar a la policía, para dar una solución real a este grave problema. Asimismo, solicitamos que, hasta que se active la ayuda de urgencia, la policía local y los servicios de limpieza no persigan a estas personas, y que se les permita dormir en los soportales de la plaza de la Constitución. Mandarlos a lugares menos visibles de la

laguntzen jarraituko dugu (eta administrazioaren edozein presio mota salatzen) udalak dagokion gizarte-laguntza aktibatu arte.

ciudad es ignorar el problema. Y lo peor es condenarles a morir en el anonimato.Por nuestra parte, seguiremos apoyándoles (y denunciando cualquier tipo de presión por parte de la administración), hasta que el Ayuntamiento active la ayuda social que corresponda.

Era berean, hirugarren sektoreko eragileek behin eta berriro trasladatu digute azkenaldian Udaltzaingoaren jarrera kale egoeran dauden pertsonekiko: hainbat tokitatik mugiarazi egiten dituzte, baina inolako aterpe aukera eman gabe eta, batzuetan, salaketa mehatxupean.

Asimismo, los agentes del tercer sector nos han trasladado en los últimos tiempos la postura de la Guardia Municipal con respecto a las personas que se encuentran en situación de calle: les han hecho irse de diferentes lugares, pero sin darles ningún tipo de alternativa para que se refugien y, en ocasiones, amenazándoles con denunciarles.

Kezka hau alkateari helarazi genion eta haren erantzuna izan zen Konstituzio Plazako Liburutegiko arkupeetan gaua igarotzen zuten pertsonen inguruko kexak jaso zituztela eta normala iruditzen zitzaiola Udaltzaingoaren jarrera.

Esta preocupación ha sido trasladada al alcalde, quien ha respondido que han recibido quejas sobre las personas que pernoctaban en los soportales de la Biblioteca de la plaza de la Constitución y que consideraba normal la postura de la Guardia Municipal.

Gauzak horrela, urtarrileko batzordeetan Herri Babeseko zinegotzia interpelatu dugu eta idatzia aurkeztu duten bizilagunekin harremanetan jarri zirela adierazi digu. Gainera, Udaltzaingoak 150 interbentzio egin dituela esan du, kale egoeran bizi diren pertsonekin eta zigor ekonomikoak prozedura administratibo ohikoa direla.

En este sentido, en las comisiones de enero hemos interpelado al concejal de Protección Civil, quien nos ha comunicado que se han puesto en contacto con los vecinos y vecinas que han presentado el escrito. Además, ha señalado que la Guardia Municipal ha realizado 150 intervenciones con personas que se encuentran en situación de calle y que las sanciones económicas son un procedimiento administrativo habitual.

Baina, bizilagunek diotenez, gauero Alde Zaharrean lo egiten duten pertsonak laguntzen dituzten 15 boluntarioek ez dute deirik jaso Udal Gobernuaren aldetik eta gauero, 20:30ean, janari beroa eta arropa banatzen jarraitzen dute 10-12 pertsonari, erakunde publikoen erantzukizun falta arintzeko.

Sin embargo, según los vecinos y vecinas, las 15 personas voluntarias que ayudan a las personas que duermen cada noche en la Parte Vieja no han recibido ninguna llamada por parte del Gobierno Municipal y cada noche, a las 20:30, siguen repartiendo comida caliente y ropa entre 10-12 personas para paliar la falta de responsabilidad de las instituciones públicas.

Berriro ere, kontraesan ugari Udal Gobernuak esaten duenaren eta egiten duenaren artean eta zaurgarritasun egoeren aurrean, kudeaketa eredu "poliziala" hobesten ari da, sozialaren ordez.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Alde Zaharrean kale egoeran daudenei laguntza ematen dieten boluntario taldearekin bilera egin dezala, egiten duten lana ezagutzeko eta beharrezkoak diren baliabideak zein elkarlana martxan jartzeko.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kale egoeran dauden pertsonekin egiten diren interbentzio polizialak Gizarte-ekintzarekin batera egin daitezela, erdigunean egoera zaurgarrian dauden pertsonen interbentzio soziala jarriz..

Donostian, 2021eko urtarrilaren 22an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Una vez más, existen muchas contradicciones entre lo que dice y hace el Gobierno Municipal, y ante situaciones de vulnerabilidad, se prioriza el modelo de gestión "policial" en lugar del social.

Es por todo ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que se reúna con el grupo de personas voluntarias que ayudan a las personas que se encuentran en situación de calle en la Parte Vieja para conocer su labor y poner en marcha los recursos y la colaboración que se precisen.

2.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que las intervenciones policiales que se lleven a cabo con personas en situación de calle se realicen en colaboración con el área de Acción Social, poniendo la intervención social de personas en situación de vulnerabilidad en el centro.

San Sebastián, 22 de enero de 2021

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu"

Eztabaida hasita, Reyes Carrere Zabala andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Reyes Carrere Zabala, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi y D. Martín Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0

---------------

ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO ORDU BATAK ETA BERROGEI MINUTUTAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:

Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS TRECE HORAS Y CUARENTA MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:

LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:

IDAZKARIA: / EL SECRETARIO: